ERREPORTAJEA ELGOIBARKO HEGAZTIAK GEHIGARRIA KILIBARREN
KIROLA HAUNDIKO ENTRENATZAILEARI KARGUA UTZI ARAZI DIOTE

BARREN
ASTEKARIA

ELGOIBARKO ASTEKARIA · 2001ko otsailaren 23a/ VIII. urtea/ 332. zkia

# inauteriak 2001





inauteriak 2001







inauteriak 2001

auteriak 2001











inauteriak 2001

inauteriak 2001

"IÑAUTIEZ HILBERA TA GARIZUMAN HIL BERRI" (Esaera zaharra)

San Frantzisko, 26 . tel. 943 742 535

# ARAMBURU

B I T XIDENDA

**Gabonetan zozketatutako urrezko bi erlojuen irabazleak**

MARIA ARRIZABALAGA *eta*
PILAR BASTERRETXEA

**izan dira**










e Informatild

# CTI INFORMATIKA

Jazinto Olabe, 6 • Eibar • Tel. 943 120 156 • E-posta: cti@euskainetnet

3 c kutxa K DIRUZ LAGUNDUTAKO IKASTAROAK

AULA

| IIASTAROA | IRAUPENA | ORDUTEGIA | EGUNA | EGUTEGIA | PRI7JOA |
|---|---|---|---|---|---|
| ACCESS Daiu Basea | 15 ordu | 17:00-20:00 | Ostirala | Martxoak 2-9-16-23-30 | 5.200 pta. |
| WEB ORRIEN EDIZIOA | 15 ordu | 09:30-12:30 | Larunbata | Martxoak 3-10-17-24-31 | 7.200 pta. |

ALLA

| IKASTAROA | IRAUPENA | ORMITEGIA | EGUNA | EGUTEGIA | PREZIOA |
|---|---|---|---|---|---|
| EXCEL Kalkulu orria | 24 ordu | 11:00-13:00 | Astel./Asteaz./Osti. | Martxoak 5-7-9-12 14-16-21-23-26-28-30 eta Apirilak 2 | 12.700 pta. |
| INTERNET | 12 ordu | 11:00-13:00 | AstearIOstug. | Martxoak 6-8-13-15-20-22 | 8.500 pta. |

**IKASGAIAK** | **ORDUTEGIAK**

*i Windows*
*i Internet*
*./. Testu tratamendua*
*i Kalkulo orriak*
*i Datu Baseak*

*1 Autoedizioa*
*1,/ Programazio lengoraiak*
*■,/ Kontabilitatea*
*J Nominaka*

*informatika zentru teknilcoa*

| GOIZEZ | ARRATSALDEZ |
|---|---|
| 08.30 - 10.00 | 15.00 - 16.30 |
| *10.00* - 11.30 | 16.30 - 18.00 |
| 11.30 - 13.00 | 18.00 - 19.30 |
| | 19.30 - 21.00 |

2001-11-23

# iritzia



## 23-F: Euskal Herriaren aurkako borrokak bere hartan dirau

23-F. 20 urte pasa dira bai, baina gauzak ez dira aldatu. Itxuraldatu bai: desitxuratu. Orduan militarren saiakerak aurrera egin ez, eta estrategia berri bati ekin zioten faxistek. "Demokraten" gorbata jantzi, eta aitzindariek ezarritako ildoari bide ernan zioten: España bakarra, española, eta banaezina lortu.

Gaur Espainiako Estatu idatzizko prentsa eta telebista kate askoren jabe dira: TVE1, La2, ABC, Diario 16... besteak beste. Eta bertatik, espainiar gizartea adoktrinatu, eta euskalduna nahasten saiatzen dira, España banaezina lortzeko, Euskal Herri bateraezina sortu asmoz.

cf

O

notizi

Egun hauetan, beste askoren artean, erasoetako bat derrigorrezko hezkuntzako matrikulazio kanpaina eta Euskal Herriko haurrek izan duten euskal hezkuntzari egokitu zaio. D eredua bultzatzea "diskriminatzea" dela diote. Eta nik diot: bai, diskriminatzea da. Diskriminazio positiboa da. Milaka urte dituen kultura eta hizkuntza oraindik zapaldu baten aldeko diskriminazioa da, eta duintasun osoz defendatu behar dugu, bai euskara, bai euskal hezkuntza. Ez dezala haien gorbatak gure lepoa estutu. Defendatu dezagun. Guk, geure eskola.

Lorea Perez de Albeniz



## Anonimotasunaren babesean

Elgoibarrek harrituko gaitu aste honetan; mozorrotu egingo da. Inauteriak iritsi dira eta betiko estereotipoak irauli eta hauetaz barre egiteko aukera izango dugu. Lege bat bakarra dago: betiko itxura aldatu eta inposaturiko guztiaz barre egin; gure barrerik iraingarrienarekin, gainera. Festa hauen arima delako eta guztiok dugulako zerbait salatzeko.

Jaiaren testigu izango dira tabema txokoak, inkonformismoaren testigu, pekatuaren testigu. Sistema ororen kontra altxatuko da gure herria anonimotasunaren babesean, eta norberak aukeratzen du anonimotasun horren aurpegia. Aurten, izango da behiak baino eroago gu geu gaudela salatzeko mozorrotuko denik, edota Tamara eta honen itzala eta defendatzaile sutsua den bere amaz barre egiteko gogoa izango duenik.

Beraz, aprobetxatu jai hauek urte osoan gutaz barre egiten duten horietaz burlatzeko eta mintzen gaituena salatzeko. Eta esan beharrik ez dago: pekatu egin.

Amaia Lariz

r


eRrEporTajea .................................... 6
motz motz .................................... in
gehigarria .................................... 13
kiRolAk .................................... 20
aGenda .................................... 24

2001-11-23

## ALKATE JAUNAK ADARRA JO DIE PRESO POLITIKOEN SENIDEEI

Elgoibarren lau preso politiko ditugu: Juan Mari Mendizabal, Iñaki Jaio, Iñazio Iriondo eta Mikel Alberdi. Laurak dispertsaturik daude eta beraien familiek milioi bat inguru gastatzen dute urtero bemuek bisitatu ahal izateko. Elgoiharko Udalak presoen batzordea du, inor gutxik jakin arren. Bertan alderdiak, Senideak, eta EPEH plataforma, laguntzaile gisa, daude. Presoen batzordearen lehendakaria Alkate jauna da. laz, hiru bider eskatu genuen batzorde honen bilera, baina ez genuen egiterik lortu. 2000ko azaroan, gure presoetako hiruk 16 urte gartzelan bete zituztenean, egin zen azkenekoz. Otsailaren 10ean, bat-batean, Alkate jaunak bilera batera konbokatu gintuen. Gai ordenean zerbait sartu nahi ote genuen abisatu zigun. Guk ez genuen ezer sartu, hori konbokatzaileak egin behar duelako eta gure azken eskaeran gai ordena aurkeztu eta kasorik ere egin ez zigutelako. Ordubete egon ginen Alkate jaunaren zain eta iritsi zenean, gai ordenik ez genuela eta Udaletik bidali gintuen. Gai ordenarena anekdota hutsa da. Alkate jaunak ez du interes apurrik gure presoen eta beraien senideen egoera zein den jakiteko, ez eta Euskal Presoak Euskal Herriratzeko helbum horren (Udalak sinatu zuena) alde egiteko ere. Bere jarrera eskuindar autoritarioa eta jendearentzako duen begirune falta agerian utzi zituen, bere aurrean zegoen jende nagusia, horrenbeste denboran zain egon ondoren, kalean uzterakoan. Egoera politiko desberdinetan ere, batzuen jarrera beti antzerakoa da, zoritxarrez.

**I.0 Senideak-en izenean.**
**NAN 15364490**

## ELGOIBAR: LEGERIK GABEKO HERRIA

Onar dezagun: zapatu arratsaldetan Elgoibarren gertatzen dena oso tristea da, eta ez naiz alkoholaz hitz egiten ari, ez; Elgoibar, hiri deskontrolatu, zikin, ezatsegin eta kasu askotan istilutsu bihurtzen ari denaz ari naiz. Jendeak edozein portal, espaloi edo eskaparate erabiltzen du txisa egiteko, eta inork ez du ezer ere egiten; kotxeek zubiak eta espaloiak okupatzen dituzte fisikaren legea desafiatuz eta trafiko arauei barre eginez, eta inork ez du ezer ere egiten; baina askoz larriagoa da koefizienterik gabeko kabestro koadrila bat (edo gehiago?) kontenedoreekin egiten ari dena: zapatuero "Kinkon"-eko kontenedoreak (aste honetan bost izan dira') errekara botatzen dituzte, eta inork ere ez du ezer egiten. Zein izan behar du "inor" honek'? Erantzun hau legeak (Udalak) eman beharko du, baina norbaitek zerbait egin beharko du herri honetako zapatuak gehiago desmadratu ez daitezen; denok dugu gustuko parrandan ibiltzea, baina era zibilizatu batean,

Agian, oker nabil, eta kotxea edozein lekutan traban lagatzea, kale erdian txisa egitea eta antzerakoak garrantzirik gabeko umekeriak besterik ez dira. Batzuk, dena alkoholaren errua dela diote: ez! Gauza bat alkohola edatea da eta instinto basatiak kontrolik gabe azaltzea, bestea. Enzefalopatia espongiformea duten animalia hauek ez dute inongo oztoporik aurkitzen euren adimen maila erakusteko. Agian Elgoibar, legerik gabeko herritzat pasatuko da historiara. Hala bada, geratu trena, jaitsi egin nahi dut-eta.

**Alberto Iriondo Gonzalez**

# Urruzunoren begi izkutua



Astebete igaro zen San Balentin egunaz geroztik. Orduan ez zion emazte elgoibartarrari oparirik egin eta egun hartan egitea bururatu zitzaion senarrari. Bazekien berandu zebilela, bai, baina halako ustekabeko polita gustatuko zitzaion bere andreari.

Dendara joan zen eta, bi aldiz pentsatu gabe, diamantezko belarritako parea erosi zion. Iragarkiaren mezua gogoan, diamanteak bezala, bere amodioa ere betirako izatea espero zuen detaile hura eduki ostean.

Senarra etxera heldu zen, pozarren. "Ni naiz, laztana, etorri naiz". Baina etxean ez zuen inor aurkitu. Mahai gainean zera zegoen paper batean idatzita: "Gure maitasunaren sua itzali da. Banatzea da onena".

**Ion Eugi**
**URRUZUNO LITERATUR TALDEA**

ASTEKARIA
**Bamten**

Nafarroa enparantza, 2
20870 ELGOIBAR
. 943 74 41 12
Publizitatea:
943 74 37 04
Faxa: 943 74 37 04
E-maila;
barren@topagunea..com
Helbide informattkoa:
ssnrdwihardun.corn/barren
ARGTTARAT7_ALEA
Elgubarko Izarra

ELGOIBARK0 ĘZARRA

**LAGUMAILEA** ElgOtlark0 Udala **ZUZENDARIA** EII Atzpuru **KAZEURIAK** Irah Agirreazaldegi, Asier Orhea **PUNUATATEA** Andoitz Agirregomezkorta **MAKETATZAILEA** Bea Ansola **ADMINISTRALOA** Amaia Rodrigez **GERENTZIA** Rafa Alvarez. M. Angeles Ortuoste. **KOLADDRATZAILEAK** Amala Lanz, Unat Argarate, Eguzkiñe Aranherri, Lorea Perez de Albenlz, Jokin Martinez, Aitor Zabaleta, Leire Ungdl, Olga Unzfila. Ihsntse Arregl, Juanito Gorostiza. leer Maguregi. Jon Gurrutsaga, Jon Eugi, Ainhoa Andonegi, Kokoe K.E. ela Urruzuno L.T.. **AZALEKO ESALDIA GOIZOn** Garateren tiburutik **INPRLMATEGIA** Gedu Koop. E. TIRADA 4.000 **Ele LEGE GORDAILUA** 5E-1.038/92 IS5N 1139-1555

*Eigoibarko Udalak, Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak eta Forre Aldundiak dinez lagandatako aldizkarea.*

1DANOISAT

GOIT1
GRUPO DANOBAT

## KEXAK



Ernakume batek honako kexa hau helarazi digu: "Asteburuan, "Kinkon" atzean egon ohi diren sei kontenedore errekara bota dituzte. Agian, bigilantzia gehiago egon beharko luke zapatu gauetan eta zakarrontziak katearekin lotzea ere irtenbideetako bat izan daiteke". Bestalde, Madalako telefono kabina askotan apurtzen dutelako ere bere kezkak azaldu dizkigu, "lekuz aldatzea izango litzateke onena. Orain oso toki onean dago baina apurtzekotan, beste lekuren batean zerbitzu gehiago egingo luke".



- Neska gazte batek kexa hau aditzera eman nahi du: "Madalako parkean zakarrontzirik ez dago eta beharrezkoa inaditzen zait zerbait ipintzea. Arduradunei eskari hau kontutan hartzeko eskatuko nieke".

- Artetxeko gazte batzuk auzoan iturririk ez daukatela eta Barrenen bidez kexa hau luzatzeko eskatu digute: "Gure auzoa zabala da eta guk ere iturri bat edukitzea nahi genuke. Aspalditik gabiltza hori lortu nahian baina ezinezkoa izan da".




- Barren astekariaren lokal aurrean bisitatiak ibili ohi direla ez da gaurko kontua baina aste honetan frogak erakutsi ahal izan ditugu. Arratoia hilda aurkitu baikenuen ate aurrean lanera sartzerakoan. Gure ustez "zikinkeria" hau ez da ona ez guretzat ez eta egunero bertara hurbiltzen den jendearen aurrean ematen dugun inadiarentzat ere.

Barrak, Birrak eta Barreak




CKOKOE 2001lqhi 33

# Elgoibar, hegaztien bizileku

***Pasa den astean bisita bitxia izan genuen BARREN-eko erredakzioan.*** Asier Serrahb ekr ***Ane, bere aiaba ixikia, etorri zitzakkigun Urasandi inguruan hilda agerfu zen Urubi bat esku*** ariecrn ***zutela. Urubiak*** gaueko ***hegazti harrapariak dira, Oniza*** eta ***Mozoloaren famŕlŕ berekoak. Asierrek alixou digunez, azken aldian nahi baino gehiagofan aurkiiu ditu hegaztiak hilda*** ekr ***egoera hau zalatzea izan da*** *bere asmoa,* florrekrz ***gain, Asier naturzalea dugu guzliz*** ekr hegazfiekrn ***aditua. Aukera aprobetxatuz, Eigoibarko inguruetan dilugun hegazti rnoiej buruzko azalpen*** bat edo beste *emateko* eskatu ***diogu.***



Lehenik eta behin, Elgoibar inguratzen duten basoak txorileku egokiak direla aipatu digu Asier Serranok, "Hegazti askok Europa iparraldetik Afrikara migrazioa hasten dute neguko hotz gordinetik ihesi, eta Elgoibar migrazio gune horretan dago kokatuta. Hegazti mota askok bidaia luzearen ondorioz, pare bat egunez atseden hartzeko aukeratzen dituzte gure basoak. Hori dela eta, mirua edo erre ontza eta erdikontza moduko gaueko harrapari migratzaileak ikustea posible da, baina zortea lagun izan behar. Izan ere, atsedenaldi luzeagoak hartzeko nahiago dituzte baso zabalagoak, adibidez, Nafarroako Irati basoa".

## Elgodiarren aurki daitezkeen hegazti motak

Gure artean urte osoan bizi diren hainbat hegazti mota daude: okil erregeak, okil berdeak, arotz handiak, uroiloak, eskiñosoak, arrapoak, argi oilarrak, herrerilloak, zapelaitzak, belatzak, sai zuriak, noizean behin Aitzgorritik datozen putreak, eta baita gaueko harrapariak ere; mozolo ontzak, apo ontzak (dagoen ontzik txikiena), ontz zuria eta urubia. Txori hauek basoan aurkitzea ez da batere lan erraza. "Gainera, zenbat eta jende gutxiagok jakin non dituzten habiak, hobe". Pazientzia handia eta lorik egin gabe egun asko pasa behar direla aitortu digu Asierrek. "Emazteak ere gustuko ditu hegaztiak eta asko laguntzen nau. Basenitarrak ere oso ondo portatzen dira nirekin, txoriak non dauden esanez". Gauean ikusteko prismatikoak erabiltzen ditu eta urteetako esperientziari esker, zenbait txoriren kantu eta deiak imitatzen ikasi du. Dena den, hegaztiak non dauden aurkitzea baino, hauen kontserbazioa da garrantzitsuena. Basoak hegaztiz beteta ikustea litzateke Asierren ametsa.



*Ane Serrano, Herri Eskola inguruan aurkitutako hildako urubia eskuetan duela.*



## Zergatik hiitlen dira hegaztiak?

Hegaztiek gizakiekin banatu behar dute beraien bizilekua nahi eta nahi ez. Gainera, pagadiak eta hariztiak nahiago dituzte pinudiak baino eta horrek asko murrizten du hegaztien bizilekua. Askotan ezin dituzte gizakiak jartzen dizkien trabak gainditu. Hegaztien hilkortasun tasa igo arazten duten arrazoi nagusiak, ehiztarien tiro eta tranpak eta pozoinketak dira. Pozoinketen kasuan, ehiztariek basoan lagatzen dituzten kartutxoetako beruna jaten dute hegaztiek; eta bestetik, intsektizida eta antzerakoek ingurunea eta bertan bizi direnak kutsatzen dituzte. Bestalde, kable elektriko eta Karakatekoa moduko antenen arriskua azpimarratu digu Asierrek, "Migrazio gunea izanik, txori askok gauez bidaiatzen du eta ez dituzte antena erraldoi hauek ikusten, oso nekatuta egoten baitira horren bidaia luzea egin ondoren. Autoek harrapatzen dituzten animaliekin ezin dugu ezer ere egin, istripuak baitira, baina beste arrisku faktore batzuk gutxiagotu ditzakegula uste dut".

**Hegaztien Eguna izaten da irailaren 29an eta aurten Elgolharren hainhat ekintza prestatuko dituzte egun horretarako**

## Zer egin hegazti zaurituekin?

Jendeak hegaztiren bat hilda edo larriki zaurituta aurkitzen duenean zer egin ez duela jakiten esan digu Asierrek, "Zauritutako hegazti bat etxera eramatea ez da izaten irtenbiderik egokiena, zaila baita nola zaindu behar den edo zer jaten duen jakitea. Zauritutako hegaztia hartzerakoan kontu handia izan behar da, gugandik defendatzen saiatuko baita. Jertse lodi bat erabili eta lasaitu dadin, burua estali. Leku batetik bestera eramateko ez da kaiolarik sekula erabili behar, zauria handiagotu besterik ez diogu egingo-eta, hobe da kartoizko kaxa batean sartzea. Etxean denbora batez edukitzera derrigortuta egonez gero, ez laga urik edo janaririk kaxa barruan eta gizakiarengandik erabat isolaturik mantendu. Bestela etxekotu egiten da eta bere ingurunera itzultzea zailagoa da". Gauzak horrela, berarekin lehenbailehen kontaktuan jartzea izan daitekeela irtenbiderik egokiena esan digu, 943 74 44 99 telefonoan, berak Donostiako Arrano Etxea moduko errekuperazio zentruekin harremanetan jartzeko aukera baitu.



*Asier Serrano eta bere alaba Ane, txorientzako habiekin edo etxe ktttxekin.*

## Hegaztien Nazioarteko Eguna Elgoibarren

Munduko 100 herrialde baino gehiagotan ospatzen da Hegaztien Eguna irailaren 29an. Aurten Elgoibarren ere hainbat ekintza prestatu dituzte. Hegaztiei buruzko erakusketa batek inauguratuko du Hegaztien Eguna. Ondoren, etxe-kutxak, jantokiak etab. nola egiten diren erakutsiko da Mintxetako ingurunean. Aitor Leza eta Asier Serrano ornitologoek diapositiba emanaldia eskainiko dute. Azkenik, irailaren 30ean, inguruko hegazti motak bertatik bertara ikusteko aukera izango da Aitor Lezak gidatutako txango bati esker. Jai egun hau prestatzen laguntzeko edo urtean zehar eginbeharreko zereginetan (Etxe kutxak egin, hegaztien erroIdan...) laguntzeko jende beharrean daudela gaineratu digu Asierrek.

## 20 urte bete dira otsailaren 23ko Estatu Kolpe ahalegina izan zenetik

# ZER DAKARKIN GOGORA 23-F OSPETSUAK?



### VICENTE ROMAN

**74 urte, jubilatua**

Beldur handia pasa genuela daukat gogoan. Guardiak, jendea leihoetatik ateratzen... Baina egun hartatik ez dut uste txarrera egin dugunik.

### SABINA ARRIETA

**76 urte, etxekoandrea**

Sorpresa haundixakin hartu genduan, Tejero lotsagabe bat izan zan. Lagun batek gizonari deitxu zion eta burutik nahastauta zabilenez, disparate bat zala pentsau genduan.





### JAVI NOVOA

**18 urte, espezialista**

Oraindik jaio gabe nengoen, beraz, ez dut ezer gogoratzen. Estatu Kolpea Tejero izeneko batek eman zuela, bigotea zeukala eta gizon txikitxo bat zela da dakidan bakarra.

### LURDES FAJARDO

**33 urte, ileapaintzailea**

Beldur handia pasatu genuen. Tejerok Estatu Kolpea eman eta Franeo bezalako beste bat etorriko zela pentsatze hutsak asko ikaratu gintuen.





### JOSE MARI BARRENETMEA

**73 urte, jubilatua**

Ez naiz gogoratzen, eta beldurrik ere ez dut uste pasa genuenik. Orain ez da posible horrelakorik gertatzerik, Tejero baztertuta dago-eta.

### NEKANE ZUBELWA

**86 urte, etxekoandrea**

Radixotik jakin naban horren berri eta egun haretako oso rekuerdo zatarra dakat. Ez neuke nahi berriz holakorik pasatzerik.



---

ogr' •11.1

### *ESKERTZA*

*2001eko otsailaren 21ean, 88 urte zituela hil zen EULALIA MUGERZA URKIRIren sendiak, bihotzez ESKERTZEN ditu jasotako doluminak, hala nola hileta elizkizunetara agertu izana.*



# Osasunean adituak

## MASAJISTAK

**Victoria Iraegi**

P. Migel Urruzuno. 31 • Tel: **943 74 07 70**

................................. Egunero: 10:30-13:00 / 15:00-19:00

## MEDIKUNTZA ALTERNATIBOA

Kemen Belardenda IMedkuntza naturala, F. de Bach masaa, makroblokka, yoga)

.............................. San Bartolome, 25 • Tel: **943 74 40 31**

.................................... Egunero: 9:00-13:00 / 16:30-20:00

**Surya** Belardenda (Yoga, reiki eta masaa ikastaro eta tratamenduak)

.............................. San Frantzisko, 23 • Tel: **943 74 25 34**

............................... Egunero: 9:00-13:00 / 16:30-20:00

## OPTIKAK

**Ikus** (Optiko-optometrista)

........................ San Bartolome, 10 • Tel: **943 74 37 34**

.................................... Egunero: 9:30-13:00 / 16:30-20:00

**Uzuri** (optometna, tonometria, kontaktologia, audiometria)

........................ San Frantzisko, 21 • Tel: **943 74 03 59**

.................................... Egunero: 9:30-13:00 / 16:30-20:00

## ORTOPEDIAK

**Itziar Sarasketa**

........................ San Frantzisko, 12 • Tel: **943 74 35 62**

................................. Egunero: 9:30-13:00 / 17:00-20:00

## PODOLOGOAK

Ibiltzen

.......................... Ubitarte, 11 • Tel: **943 74 36 56**

.......... Egunero: 10:00-13:30 / 15:00-19:30

**biaki Rivero**

...................... San Bartolome, 28 • Tel: **943 74 32 90**

............................... Ostegunak: 9:00-12:00 / 15:00-19:30

I .r■7 1.17

CDI S lJ n Ci

# KALTZIOA

Bizitzako lehen urteetan kaltzio gutxi hartzeak heztu̇duraren garapen eskasa eragin dezake, eta ondorioz baita osteoporosia ere. Izan ere, kaltzioa hezurrak eta haginak eratzeko eta kontserbatzeko beharrezkoa da, baita kontrakzio muskularretarako eta odolaren koagulaziorako ere.

**Kantitatea**

Egunean 1.000 miligramokoa da oinarrizko kopurua. 30 eta 40 urte bitartean kaltzioaren galera saihesteko gutxtenez oinarrizko kopurua hartzea gomendatzen da. Bestalde, 50 urtetik gorako emakumeek, 65 urtetik gorako gizonek, 25 urtetik beherakoek eta haurdun daudenek egunero 1.500 mg. hartu beharko lituzkete.

**Non dago kaltzioa?**

Esnea eta esnekiak dira kaltzio iturri garrantzitsuenak, baina badago beste hainbat jakitan ere. Hosto berdedun barazkiak, hezurdun latako arrainak, aberastutako ogia, zerealak, lekaleak eta pikupasak. Adituen ustez, hobe da jaki hauek hartzea bitaminak edo farmazian prestatutako produktuak baino.

**Kaltzio gehiegi hartuz gero...**

Kaltzio gutxi hartzea kaltegarria bada, asko ere ez da inoren mesederako. Hiperkaltzemia deitzen zaio gaitzari eta ondorio txarrak ekar ditzake: nekea, egarria, buruko nahasmena, anorexia, goragalea, botaka egitea eta idorreria.

**Beste hainbat gomendio**

Ariketa aerobikoak egitea eta alkohola, tabakoa, kafea eta kolazko freskagarriak gutxiago hartzea ona da. Izan ere, azido fosforikoak kaltzioaren hustuketa errazten du.

**Inwria**
**'El semanar aldizkaria**

L

**Gida honetan agertu nahi baduzu, deitu 943 74** 37 04ra

Osasunari buruzko kezkaren bat argitu nahi baduzu, deitu BARRENeko 943 74 41 12ra

## INAUTERIAK 2001

*Herrian kulturgintza bultzatzeko plataformak, herriko beste hainbat elkartek eta Udalak honako ekintzak antolatu dituzte inauteri jaietarako:*

**OTSAILAK 23, ostirala**
**19:30** Kale Antzerkia "Rekolore".
**22:30** Kontzertua
Herriko Antzokian.
"ExpresiOn Sonora".

**OTSAILAK 24, larunbata**
**17:00** Karaokea eta mozorroen desfilea Plazan (Atxutxiamaika).
**19:00 "Mauxitxa"**
txarangaren kalejira.
**22:00** Dantzaldia Plazan.
"La ferreteria deI son".
**23:00 "Mauxitxa"**
txarangaren kalejira.
**24:00** Mozorro lehiaketa Plazan.
(Gurutze Gorriko Gazteak)

**OTSAILAK 25, igandea**
**18:00-21:00** Dantzaldia
Jubilatuen Etxean "Gelatxo" taldea.

**OTSAILAK 27, asteartea**
**16:30** Mozorroen elkartzea Plazan.
**17:00** Pailazoak
"Korri, xalto ta brinko".
**18:00** Suzko zezena Plazan.
**18:30 "Mauxitxa"** eta "Auskalo" taldeekin kalejira.
**18:00-21:00** Dantzaldia
Jubilatuen Etxean "Gelatxo" taldearekin eta mozorro lehiaketa.

## "Altzolako Urak" enpresak lehen saria eskuratu du "Euroalimentachjn 2001" ferian

### Birziklatzea errazteko sei botilako kartoizko kaxa da aurkeztu duen produktu berria

Euroalimentaeit:in 2001" feria egin dute aste honetan Bilbon eta hainbat jardunaldiren ostean, uren lehiaketa ere izan da bertan. Iturriko ura eta botilako ur minerala probatzeko eman eta sukaldari zein kazetari ezagunek osatutako epaimahaikoak uñezko saria eman diote Altzolako urari. Euskal Gastronomia Federazioak antolatutako ielnaketan Euskal Herriko urek ezezik Espainiako hainbat lekutatik eta Frantziatik ekarritakoek ere hartu dute parte.

"Altzolako Urak" enpresako zuzendari Pablo Benitok esan digunez, horretako sari bat jasotzea beraien lanaren esker ona adierazteko modu bat da. Ez da Altzolako enpresak horrelako sari bat jaso duten lehen aldia, izan ere, joan den mendean Bartzelonan, Parisen eta Buenos Airesen ere saritu zuten. Urtetan mota honetako lehiaketak egin gahe egon dira, haina berriz ekin diote. eta etapa berria suertez hasi du "Altzolako Urak".






*Goian, Pablo Benito "Altzolako L'rak" enpresako zuzendaria. Eskunian, enpresak jasotako dontina eta diplonta.*

**Produktu berria**

Lehiaketan parte hartzeaz gain produktu berri bat aurkeztu dute ferian, sei botilako kaxa. Kartoi btrziklatuz eginda dago, eta era berean botilak bertan gorde eta berriz birziklatzeko balio du. Beraz, kalitatezko ura eskaintzeaz gain natura ere zaintzen du "Altzolako Urak" enpresak.

54g[11,4]
ileapaindegia
Depilazio Elektrikoa
San Franizisko 49-1 Tel: 943 74 11 89

14
Mandiola Egurrak S.L.
Domingo Arrizabalaga
SALEROSKETA
BASOEN MOZKETA

Juan Mugerza, 3 727 943 74 1 2 56 - (mobila) 609 53 23 83

## Alhitxuriko zabortegiko lurrak Elgoiharko Industrialdeari saldu dizkio Udalak

Albitxuriko zabortegia hondakinez beteta dagoenez, aurrez adostu zutenaren arabera, lur horien ardura Udalari eman dio Mankomunitateak. Udalak Elgoibarko Industrialdeari salduko dizkio, eta bertan pabiloi industrialak eraikitzeko asmoa dago. Izan ere, Albitxuriko industrialde berria egiteko Ianak aurrera doaz, eta zabortegiko lur zatia ere gune industrialaren barne egongo da.



## Manchesterreko "City College" ikastetmko 11 ikasle Elgoiharko Institutuan izan dira

Manchesterretik etorritako ikasle talde bat Elgoibarren izan da azken egunotan. Joan den otsailaren 10ean heldu ziren eta hemen izango dira bihar arte, hilak 24. Elgoibarko Institutuak eta Manchesterreko City College ikastetxeek duela 9 urte sinatutako akordio baten bitartez bi eskolen arteko elkartrukea egiten dute. Manchesterretik etorritako 11 ikasle eta bi irakaslek proiektu honen bidez euroaren eragina aztertu nahi dute. Foru Aldundiaren, AFMren eta Debegesaren laguntza dauka proiektu honek, eta elkartrukea gauzatzeko Elgoibarko Institutuan Administrazioa eta Finantzak ikasten ari diren 11 ikasle eta beraien bi irakasle ere Manchester ezagutzera joango dira datorren martxoaren 10ean, eta bi aste igaroko dituzte bertan.





## San Frantziskoko iturria mozorrotuta

Inauterietan sartu berriak gara, baina jaiak aurreratu nahi dituenik ere ba omen da gure herrian. Begiratu bestela astelehen goizean zein itxurarekin agertu zen San Frantziskoko iturria, peluka eta guzti. Ea norbaitek ideia hartu eta inauterietako mozorroa dotore asko prestatzen duen.

## Ei Saluadorrera dirulaguntza hidaltzeko kontu korronteak zahalik

Aurreko lurrikararen sustotik artean onera etorri gabe zeudela, lurrak berriz astindu du E1 Salvador. Bigarren lurrikarak oihartzun txikiagoa izan badu ere, oraindik laguntza bida1tzeko dirua biltzen ari dira. Diruz lagundu nahi dutenek hona hemen hainbat kontu zenbaki:

**Kutxa** 210100921500101969
**Banco Guipuzcoano**
004200019101100326
**Euskadiko Kutxa**
30350050710500046056
**BBVA** 01820915110201520000
**BCH** 00490001592810016616
**Banco Vasconia**
00750001890606695077
**Banco Santander**
0049700312910705607

BaRRen

2001 ko otscileren 23o/V111 urteo/71 zkict

## Musika Eskola sortu nahi dute Mendaron

### Zestoako Musika Eskolakoen laguntza izango dute



*Txaranga bezalako taldeet etorkizuna ziurtatu eta hohetu nahi da Musika Eskolarekin.*

Musikarekin harremana duten talde eta bakarkakoak, txls-tularlak, txaranga, musika ikasleak, e.a., musika eskola sortu nahian dabiltza Mendaron. Egun musika ikasleek kanpoan egin behar dituzte ikasketak eta proiektu berri honekin herrian bertan musika ikastea abantaila handia dela adierazi digute.

Zestoako Musika Eskolakoen laguntza

Otsailaren 13an bilera egin zuten Kultur Etxean gai hau lantzeko asmoarekin eta bidean bakarrik aurki ez daitezen, Zestoako Musika Eskolako arduradunak izan ziren bertan, Zestoan ere egoera berdina bizitakoak baitira. Biak ere herri txikiak izanik, Zestoako esperientzia baliogatTia izango delakoan daude arduradunek eta proiektuak benetan merezi duela adierazi ziguten. "Mendaron antzerako zerbait egiten laguntzeko prest gaude", esan zuten Zestoako Musika Eskolakoek.

## Dena prest Mendaron inauterietarako



Aurten ere inauteriak ospatuko dira Mendaron hil honen 22tik 27ra bitartean. Ume guztiek beraien mozorroak aterako dituzte kalera eta ekitaldi desberdinak ere antolatu dituzte herrian. Alde batetik, Mendaroko San Jose Ikastolakoek, bertako patioan jolasak, kantuak, e.a., egingo dituzte. Bestalde, larunbatean, herriko frontoian ere jaialdia antolatu du Udalak. Arratsaldeko 17:30ean ikuskizuna izango da bertan eta txokolatada ere ez da faltako.

## ■ Asteburua eskiatzen In Leikerekin

Otsailaren 2tik 4ra bitarteko asteburarako In Leikek eskiatzera joateko irteera antolatu zuen Aragoiko Pirinioetan dagoen Astungo estaziora. Guztira 15 lagun animatu ziren eta esan digutenez, oso eguraldi ona egin zien eta ederki igaro omen zuten. In Leikeko mendi taldeak mendi irteerekin jarraitzeko asrnoa du eta datozen hilabeteetarako egutegia antoIatzeko gaur, ostirala, bilera egingo dute Azpilgoetako lokalean gaueko 9:30ean.

## • Santa eskeko diru banaketa

Santa Ageda bezperan Mendaron eskean aritu zirenek 385.541 pta. bildu zituzten guztira, goiz eta arratsalde, lehenik baserriz baserri eta ondoren kalez kale kopla kantari ibili ostean. Aurrez erabakita zegoen moduan, Kilimon Futbol Taldea, Txirristaka Bertso Eskola eta dantzari taldearen artean banatu zituzten diruak. Banaketa honela gelditu zen: Kilimoiak 130.000 pta. bertso eskolak, 50.000 pta. eta dantzari taldeak, 142.975 pta. jaso zituzten. Gainontzeko diruak Santa Ageda Eguneko gastuetarako erabili zituzten.

## • Sagardotegira irteera

Mendaroko Gazte Asanbladak sagardotegira irteera antolatu du martxoaren 17rako. Joateko izena eman nahi dutenek, Txirristaka, Ormola edo Menditxo tabemetan egin dezakete. Izena ematerakoan 1.000 pta ordaindu beharko dira eta gainontzekoak, 4.000 pta, autobusean sartzerakoan. Izena emateko epea otsailaren 26an amaituko da.

maRRen Kolaboratzatleak: Joseba Etxeberria , Edurne Olazabal, Lurdes Rodriguez eta Enetz Ezonarro.
Mendaroko Udalaren dirulaguntzarekin argitaratua

# Errotak,

## Mendaroko industriariaren garraniziaren erakusgarri

*Nekazal herria izan da ainizinatik Euskal Herria, baina gaur egun, gero eta jende gutxiago bizi da baserritik. Kaleko bizitza erosoagoa beti da jornuga. Bide bafez, hainbat fresna etcr ofizio museoefarako nahiz historia eta emografia liburuetarako hornigai gisa geratu dira. Horietakoak ditugu errotak eta errotariak eta hauek ekarri nahi izan ditugu orrialde hauetara.*



Mendaro asko aldatzen ari da azken urteotan eta ondorioz, baita hainbat eraikin historiko desagertzen ere, errotak ere historiara pasa dira. XX. mende bukaerara arte industrian garrantzia handia izan zuten errotek. Gaur egun errotari Ianbidea desagertuta dago Mendaron. Errotak bi harriren bidez alea ehotzeko tresnak dira. Harri bat higigaitza da eta bestea, haizeak edo urak birarazten du. Eustakio Roteta, Mendaroko azken errotariari esker, badakigu hemen inguruan urezko errotak baino ez daudela. Mendaroko historia liburu bakarrean irakurri daitekeen bezala. Bi errota mota egon izan dira, publikoak eta pribatuak.

**Sei errota izan dira Mendaron historian zehar: Lasaldę Errotaharrena, Intsansti, Artañola, Goikola eta Plazakoa.**

### Errota publikoak

Iganderoko mezatan oharra eman eta gero, herriko plazan subastatzen ziren. Enkantean diru gehien eskaintzen zuenak, aurretik zehaztutako denborarako, errota bereganatzen zuen. Aldi berean, maizterrak, errotaria aurkeztu behar zuen onarpen publikoa jasotzeko. Errotaren etekinak obretan inbertitzen ziren. Badirudi errotak oso garrantzitsuak zirela udal ekonomietan. Maiztertzak gabonak baina lehen ordaintzen ziren, horrela errotari berria urte berriarekin sar zitekeen. Errota saltzen zenean, alkateak erosleari errota eta Iurrak pasatzen zizkion bi lekukoren aurrean.

### Errota pribatuak

Tratua maizterra eta jabearen artean egiten zen zuzenean. Ordainketak espezietan egiten ziren dirua agertu zen arte. Maiztertza gabonetan ordaintzen zen.

## Mendaroko sei errotak

Esan bezala, bi eratako errotak ezagutu dira herrian eta bertako industrian, burdinola, txokolatea eta bizkotxoekin batera, garrantzitsuak izan dira. Sei errota izan ditu Mendarok. Hona hemen bakoitzaren hainbat ezaugarri:

**LASALDE errota**
Denetatik zaharrena da. 1500 urtean azaltzen da lehendabizi, olategi moduan. 1822an Iriondo familiak hartu zuen errota. Azken errotaria Ramon Loiola izan zen eta 1910ean utzi zion lanari. Errota honek hiru harri zituen eta Kilimoi errekako urarekin jartzen zen martxan.



*Lasaldeko dorretxea, errota eta burdinola.*

**ERROTABARRENA** edo **LINAZASORO errota**
1945etik 1973ra bitartean egon zen martxan. Errota publikoa zen. Egun ez dago honen aztarnarik.

**PLAZAko errota**
1500 urtean aipatzen da lehendabizi olategi moduan eta 1963ra arte egon zen. Puhlikoa zen eta Bilbo-Behobia autopista egin zenean suntsitu zuten.

**ARTAÑOLA errota**
"Aurten-ola¯ bezala aipatzen da 1500 urtean "Mendaroko Historia" liburuan. Bertako azken errotaria Hilario Arriola izan zen. 1963an utzi zion lanari. Intxusai errekako urarekin jartzen zen martxan.

**GOIKOLA errota**
Auzokideei esker jakin dugunez, errotak duela 100 urte laga zion lan egiteari.

**INTXAUSTI errota**
1810etik agertzen zaizkigu errota honen aztarnak. Azken errotaria Eustakio Roteta izan zen, 1983. urtera arte egin zuen lan. 83ko uholdeen ondorioz itxi hehar izan zuen errota. Beranduago, Garaganzako obrak zirela-eta, bota egin zuten.



# Eustakio Roteta

## Mendaroko azken errotaria.

/ntxausti errotako azken errotaria da Eustakio. Bertan, artoa, garagarra eta babak ehotzen zituen. Babak ganaduen pentsutarako erabiltzen ziren eta ale handiegiak zirenez, eho beharra zegoen. Produktu hauek kanpotik ekartzen zituztela esan digu Eustakiok. Gizon hau Oiartzuarra da jaiotzez eta Mendaron errotari bezala nola hasi zen galdetu diogu, arraroa egin baitzaigu Oiartzuar batek Mendaron errotari moduan lan egitea.. "Nere aitxa eta aitxitxa ere errotarixak izan zian eta errotan jaixotakuak. Mendarora errotia zaualako etorri nintzan". Oraindik gogoan ditu Eustakiok bere errota eta haren funtzionamendua ere.

**"Aitxa eta ere errotarixak izan zian eta errotan laixotakuak. Mendarora errotia zaualako etorri ntizan"**

"Gurian harri haundixenetakuak zaozen. Beheko harrixa fijua izaten zan. Hau etzanda egoten zan eta gainekua, ejiakin. Goikaldetik alia botatzen jakon egurrezko zulotik eta aurrian eukitzen daban askara irina ateratzen zan".

Eustakiok errotariek beraien hizkuntza propioa zutela azaldu digu. " Guk jornalari "laka" deitzen ginon. Pisuak ere diferentiak izate zian, "anega" eta "anega erdixan" batzen genitxuan. Anega bat 42 kilo dia". Gaur egun pil-pilean dagoen "behi eroen" gaiarekin lotuta, bitxikeria bat ere aipatu digu: "Anaixak, "vacas locas"-en problemiakin, gero eta garagar gehixao saltzen dau Oiartzunen".

# ga7etUitu Zattand



Atal honetako erretratu zaharra Juanita Zulaikak laga digu. 1933 urte ingurukoa omen da argazkia eta Narciso baserriko senideak dira bertan, dotore asko, agertzen direnak. Baserria Aitzbeltz koba inguruan zegoen baina egun, pareta bat besterik ez da gelditzen. Hauek dira erretratuan agertzen direnak.

Goitik hasita, ezkerretik eskumara: **Felix Zulaika, Andres Zulaika** eta **Julian Zulaika** (t).

Erdian: **Josefa Zulaika (t), Simon Zulaika** (t) eta **Jose Zulaika** (t).

Aurrealdean: **Antonia Zulaika, Victoria Bergaretxe (t), Jose Zulaika (t)** eta **Ignacio Zulaika.**

# EUROA

## Pezetatik eurorako aidaketak zenhateraino eragingo die pentsioei? Nolz egingo dira ordainketak eurotan?

2002ko urtarrilaren letik aurrera eurotan bakarrik ordainduko dira pentsioak, 1999ko urtarrilaren lean finkatutako pezeta eta euroaren arteko bihurketa tasaren arabera kalkulatuta (Euro 1.166,386 pta.).

## Zer gertatuko da kutxazain automatikoekin?

Aldaketa gehienak kutxazain automatikoetan egin beharko dira, horiek bileteen tamaina berrira egokituko baitira. Kutxak egokitu egingo ditu bere kutxazainak, hauek zenbatekoen ordainagiriak pezetatan eta eurotan erakuts ditzaten pantailetan, gero paperean emateko. 2002ko lehen bi hilabeteetan, gure kutxazainek pezetatan edo eurotan emango dute eskudirua. Eta 2002ko rnartxoaren letik aurrera, berriz, eurotan bakarrik.

## ZEIN DA ERANTZUN ZUZENA?

*Pezeta eta euroaren arteko bihurketa tasa honako hau denez, 1:0=166,386 pta. jakingo al zenuke, biribiltzearen arauak aplikatuz, kalkulu hauek egiten?*

1.125 pta.ko kafe bat eurotan kostatuko zait...

| | | |
|---|---|---|
| 0,75123z | 0,74z | 0,75z |

2. 1.560 pta.ka liburu hat eurotan ordaindu beharko dut...

| | | |
|---|---|---|
| **9,38¤** | 9,3E | 9,371:1 |

3, 35.000 pta. batlauzkat gastatzoko, zein Hontrabalio emango didate eurotan...

| | | |
|---|---|---|
| 210,3E | 210,311 | 210,43: |

KutxaKBABESTUTAKO ATALA

kutxa gizarte-ekintza obra social

# 123 gaztetxo aritu ziren saltaka Mintxetan Eskolarteko Kros Txapeiketan

## Euria eta hotza egin arren, Mintxetako gradak jendez bete ziren



Alebin, infantil eta kadete mailako 123 neska-mutil aritu ziren joan den igande goizez Mintxetan korrika, Eguraldia lagun izan ez bazuten ere, Gipuzkoako hainbat herritatik etorritako gaztetxoek saltaka egiteko duten kemena erakutsi zuten. Bizikleten zozketa zela-eta, Mintxetako gradetara hurbildutako ikusleak ere ez ziren gutxi izan, eta elgoibartarrak gogoz animatu zituzten. Mintxeta Atletismo Taldeko korrikalariak, zein herriko ikastetxeetako gazteek postu onak lortu zituzten, eta egon zen podiumera igo zenik ere. Alboko koadroan elgoibartar eta mendarotarren sailkapena agertzen da.

### ESKOLARTEKO KROS TXAPELKETA

**ALEBIN NESKAK**
**6.** Maialen Salaberria
**7,** Zitoritz Urain

**ALEB1N MUTILAK**
4. Unal Cabo
5. Asier Lizarralde
10. Adur Juaristi
11. Iñaki Etxaniz
13. Arkaitz Azkoitia
25. Bingen Esturo
28, Iker Isasi
32. Lander Azpiazu
33. Eneko Salegi
37. Andoni Loiola
40. Asier Atorrasagasti

**1NFANTIL NESKAK**
6. Lara urain
7. Nerea Zublaurre
8. Dorleta Aranberri
14. Saioa De Pedro
15. Maider Ofiederra

**1NFANTIL MUTILAK**
3. Antton Alberdi
9. Ibai Azkoitia
10. Xabier Mujika
12. Aitor Arriliaga
13. Iffigo Agirregomezkorta
17, Sergio Martinez
18. Josu Teliabide
19. Asier Lopez
21. Osel Sanchez
22. Aitor Gonzalez



## Herri Eskolako guraso eta ikasleak Ipuñan izan ziren

Iruhara San Ferminetara joaten da jende asko eta asko, baina badira Nafarroako hiriburura beste era bateko txangoan joaten direnak ere. Horixe da Herri Eskolakoen kasua, Guraso Elkarteak antolatuta, irteera egin zuten Iruñara urtarrilaren 28an. Guraso eta ikasle, guztira 80 lagun inguruk Planetariuma bisitatu zuten, Alde Zaharreko kaleetan paseoan ibili ziren. Esan digutenez, gustura igaro zuten eguna.

BOUT1QUE DEL PAN
Enpanadak Enbutidoak
Baserriko ogia Bolleria
Bartolome, 6 / B. Ezenarro, 1 z 943 74 33 92

Cordon,Vilarchao, c.b.
DEKCIRAZIOA
MOKETAK, KORTXO BARNIZATUA, PVC ETA PARETAK, SINTASOLA, ZOLU INDUSTRIAIAK, GORTINA BERTIKAIAK, GOTELE ERROTULAZIOA, PINTURA OROKORRA.
San Roke , 7 behea. Tel: 943 74 28 74-74 05 70

# Mozorro lehiaketa eta argazki rallya izango dira aurtengo inauterietan

## 10.000 eta 45.000 pezeta bitarteko sariak izango dira lehiaketetan



*Mozorro lehiaketara taldeka zein bakarka aurkeztu ahal izango dira parte hartzaileak.*

Inauteriak gainean ditugu eta Udalak zein herriko hainbat elkartek ekitaldiak antolatu dituzte jai hauetarako. Urtero bezala aurtengo inauterietarako ere mozorro lehiaketa antolatu du Gazteen Gurutze Gorriak. Bestalde, Elgoibarko kulturgintza bultzatzeko sortu berri den plataformak argazki rallya jarriko du martxan.

Mozorro lehiaketa larunbatean, hilaren 24an, izango da Plaza Handian gaueko 24:OOetan, eta partehartzaileek Plazan bertan eman beharko dute izena antolatzaileengana joanda.

### Argazki rallya

Urteroko mozorro lehiaketaz gain, aurten bada nobedaderik, argazki rallya, hain zuzen ere. Argazkilaritzan zaletua den edonork har dezake parte eta otsailaren 23, 24 eta 27an Elgoibarko Inauteriei buruzko argazkiak ateratzea izango da kontua. Ondoren martxoaren l4an diapositiba emanaldia eta sari banaketa egingo dituzte Toletxe tabeman. Izen ematea ere bertan egin beharko da 1.000 pta. ordainduz.

Bi lehiaketa hauetan parte hartzera animatzeko motiborik bada, izan ere, sariak ez dira nolanahikoak.

**MOZORRO LEHIARETAKO SAMAK**

Taldeka
1. saria. 30.000 pta.
2. saria. 20.000 pta.
3. saria. 15.000 pta.

Bakarka
1. saria. 20.000 pta.
2. saria. 15.000 pta.

Koreografia onena
10.000 pta.

ARGAZKI RALLYA
1. saria. 45.000 pta.
2. saria. 20.000 pta.
saria. 10.000 pta.

# Beñat Bilhao izango Elgoiharko Izarrako presidente berria

Joan den astelehenean, hilaren l9an. Elgoiharko Izarra Kultur Elkarteak urteroko batzar orokorra egin zuen Kultur Etxean. Elkarteko proiektu ezherdinei buruzko azalpenak emateaz gain, batzarrean zuzendaritza bemiko kideak aurkeztu zituzten.

Gurean Bai Hitzarmenari, aisialdiari, Barren astekariari, kultur eskaintzei, Arigera proiektuari eta Toletxeri buruzko argibideak eman zituzten bileran, 2000. ttrtean egindakoak eta 200 lerako asmoak azalduz. Horretarako proiektu hakoitzeko arduradunak izan ziren mahaian.



*Argazkian, zutik ezkerretik e.s.kuntara, Inaxio Garrnendia, Junkal Txurruka eta Rafa Alvarez. Behean, Beñat Bilbao, Jon Peli Uriguen eta Jon Ulibarri.*

Azalpenen ostean, orain arteko presidente Ifiasio Garmendiak eta Rafa Alvarez gerenteak, beraien postuak utziko dituztela aditzera eman zuten. Bide batez, zuzendaritza batzorde berria aurkezteko aprobetxatu zuten batzarra. Beñat Bilbao izango da presidentea, Junkal Txurruka presidente ordea, Jon Peli Uriguen gerentea, Pello Juaristi gerente ordea, eta Jon Ulibarri bokala. Iliasio Garmendiak bazkideak agurtu eta zuzendaritza berrikoei laguntzeko prest izango direla adierazi zien.

# Jose Mari Otazu, "Haundi"-ko entrenatzaile kargutik kentil ULLIJILIz'

## Xabi Alonso elgoibartarra izango da entrenatzaile berria denboraldi bukaerara arte



**Jose Mari Otazu**
C.D. ELGOIBARKO ENTRENATZAILE OHIA



**Xabi Alonso**
C.O. ELGOIBANO ENTREIVATZKER

Jose Mari Otazu donostiarrak Haundiko entrenatzaile izateari laga dio, C. D. Elgoibarko zuzendaritzak hala erabaki duelako. Otazuk Hondarribiaren aurkako partiduan zuzendu zuen taldea azkenekoz. Ia denboraldi hasieratik sailkapeneko aurreneko postuetan izan ostean, zeharo holada txarra pasatzen ari da Haundi taldea. Sei partidu jarraian galdu ondoren, mailaz igotzeko zituen itxaropenak zapuzten joan dira pixkanaka. Julen Konde presidenteak erabaki gogorra izan dela aipatu digu, "horrelako erabakiak hartzea beti da gogorra, baina azken partiduetako emaitza txarrek izan dute errua. Taldeak sailkapenean duen egoera ikusita zaila da mailaz igotzea, baina presidente moduan bukaerara arte saiatzea tokatzen zait. Oraindik 39 puntu daude jokoan eta ezin dugu amaierara arte etsi".



*Haundik sei partidu jarraiau galdu izanak eragina izan du entrenatzaile aldaketan.*

**Xabi Alonso entrenatzaile berria**

Denboraldi bukaera bitartean Xabi Alonso elgoibartarra izango da entrenatzaile berria. Alonso hainbat urtez izan zen Haundiko kapitaina eta une honetan erregionaleko entrenatzaile gisa ari zen. Erregionaleko ardura, herriz, Edu Alonso eta Jose Manuel Fernandezek hartuko dute.

# Lagun arteko esku pilota txapelketa antolatu du Gazte Asanbladak

## Izena emateko azken eguna otsailaren 28a, asteazkena, da

Elgoibarren dagoen pilotazale kopuruak eta zaletasunak bultzatuta, Gazte Asanbladak pilota txapelketa bat antolatzea erabaki du. Martxoaren 3a aukeratu dute txapelketa jokatzeko eta pilotazaleak pilotari bihurtzeko. Izena emateko azken eguna asteazkena, otsailak 28, izango da. Interesatuek egun hori baino lehenago Gaztetxera joan beharko dute. Izena ematearekin batera 500 pta. ordaintzearekin nahikoa izango da. Partiduak non jokatuko diren eta txapelketako oinarriak izen emateak bukatu ondoren argituko dituztela aipatu digute, "txapelketa osoa zapatu goizean jokatu ahal izateko neurri bereziak hartu beharko dira, ziurraski, batez ere, jende mordoa apuntatzen bada". Ondoren, lagunarteko hazkaria egingo dute partehartzaile guztiek. Pilotan jokatu ez arren norbaitek bazkarira joatea nahi izango balu, asteazkena baino lehen Gaztetxera zuzentzea besterik ez du.



*Txapelketan ez da pilotari profesionalik arituko, baina partehartzaileak saiatuko dira hauen jokaldiak errepikatzen.*

2001-11-23

# Eskualdeko 11. Areto Futbol Txapelketa bigarren fasean sartu

Pasa den urteko urrian hasi zen Eskualdeko II. Areto Futbol Txapelketa. Bailarako 48 taldek hartzen dute parte 4 kategoriatan banatuta, eta txapelketako lehen fasea bukatu berri da. Lehen fasean lortutako emaitzen arabera, talde batzuk mailaz igotzea lortu dute eta beste batzuk, alderantziz, kategoria galdu dute. Bigarren faseko bi jardunaldi jokatu dituzte jadanik talde gehienek eta hauek dira orain arteko sailkapenak.

**LEHEN MAILA**

| POSTUA | TALDEA | PUNTUAK |
|---|---|---|
| 1 | S.A | 4 |
| 2 | C. Castilla y Leon | 4 |
| 3 | Open Club | 3 |
| 4 | Drink Team | 3 |
| 5 | La Kolina | 2 |
| 6 | Toletxe* | 2 |
| 7 | Aixa | 2 |
| 8 | Amaña | 1 |
| 9 | P.S.K. * | 1 |
| 10 | Elur F.S. | 1 |
| 11 | Garma's | 1 |
| 12 | Petaphumaikos | 0 |

11.11. ~ - 1

| POSTUA | TALDEA | PUNTUAK |
|---|---|---|
| 1 | Phoskos | 4 |
| 2 | Patxi Taberna | 4 |
| 3 | Bar Tupi Azpi | 4 |
| 4 | Brujeria | 4 |
| 5 | Aizkorak Mendibil* 2 | |
| 6 | Vulthur Griphus* | 2 |
| 7 | E-90 | 2 |
| 8 | Cafeteria Arkupe | 1 |
| 9 | Horacio | 1 |
| 10 | Zordunak | 0 |
| 11 | Ganbara | 0 |
| 12 | El Loucal | 0 |
| 13 | La Mosca gau | 0 |

11111•1111111111---- 1

| POSTUA | TALDEA | PUNTUAK |
|---|---|---|
| 1 | Deportes Justo | 4 |
| 2 | Barrenkale | 4 |
| 3 | Parque y Jardines | 4 |
| 4 | Dinamo de Gale | 4 |
| 5 | Kashima Brewer's | 2 |
| 6 | El Lute | 2 |
| 7 | A mi me gusta el... | 0 |
| 8 | Kunta Kinte | 0 |
| 9 | Pub gaberdiko | 0 |
| 10 | The Ravers | 0 |
| 11 | Inmob. San Roke | 0 |

~11111111111111Z-1

| POSTUA | TALDEA | PUNTUAK |
|---|---|---|
| 1 | Mehys | 4 |
| 2 | Atxumurka | 4 |
| 3 | Kon 8 vasta | 4 |
| 4 | Guria Electricidad* | 3 |
| 5 | River Resources | 2 |
| 6 | Culebrilla 2000 | 2 |
| 7 | Rezola | 2 |
| 8 | F.C. Galatasaray | 2 |
| 9 | Colijonodrinkis | 1 |
| 10 | Eusko Label | 0 |
| 11 | Artif. Del buen juego | 0 |
| 12 | Esta agua de solares | 0 |
| 13 | Ceda el vaso | 0 |

*ikurrarekin. talde elgoibartarrak

## ■ Zikloturisten irteera otsailaren 25ean, domekan

Elgoibarko Lagun Taldeak antolatuta, datorren domekan, hilaren 25ean, 7. zikloturisten irteera izango da. Plaza Handitik irtengo dira goizeko 10:00etan, eta honakoa izango da egingo duten ibildibea: Elgoibar, Deba, Itziar, Zumaia, Getaria, Zumaia, Itziar, Deba eta Elgoibar. Guztira 70 km. dira. Nahi duen edonork har dezake parte.

## EMAITZAK

### Futbola

Pedrusko 1- Gazteak 1 (1. erreg.)
Elgoibar 1- Eibartarrak 2 (Neskak)
Hondarribia 0 - Haundi 0 (Pref.)
Hamaika Bat 2- Elgoibar 2 (1. Erreg.)
Pasajes 6 Elgoibar 1 (Oho. jub.)
Beraun 9- Elgoibar 0 (1. Kad.)
Zarautz 7 - Elgoibar 0 (Oho. int.)

### Eskubaloia

Pneumax Elg. 16 -Trapagaran 16 (Jub. mul.)
Tecnomeca Elg. 25 -Trapagaran 10 (Kad. mut.)
Gaur Elg. 22 -Arrasate 14 (Kad. mut.)
IMS Eig. 18 - Zuazo 15 (Seniar nesk.)
Oiarso Ereintza 12 Unceta Elg 19 (Jub. nesk.)
Oiarso Ereintza 12 - Pagoaga Elg. 7 (Kad. nesk.)

### Esku pilota

Pneumax Elg. 16 - Trapagaran 16 (Jub. mut.)
Tecnomeca Eig. 25 -Trapagaran 10 (Kad. mut.)
Gaur Elg. 22 Arrasate 14 (Kad. mul.)
IMS Elg.18 - Zuazo 15 (Senior nesk.)
Oiarso Ereintza12 - Unceta Elg. 19 (Jub. nesk.)
Oiarso Ereintza12 Pagoaga Elg. 7 (Kad. nesk.)

### Areto Futbola

Zur Ta Lur-Zarautz (1. Maila)
Zur Ta Lur - Piti Pascual (Euskal **Liga)**

### Idarraga kafeak 4. saria

**HAUNDIko** jokatari erregularrena 00/01

| JOKALAR1A | PUNTUAK |
|---|---|
| 1- Zulaika | 34 |
| 2- Laskibar | 20 |
| 3- Lander | 17 |
| 4- Saiz | 16 |
| 5- Caro | 13 |
| 6- Alkorta | 13 |
| 7- Izagirre | 12 |
| **ß-** Loren | 9 |
| **9-** Mugika | 9 |
| 10- Gurrutxaga | 6 |
| 11- Portu | 4 |
| 12- Joseba | 3 |

## AGENDA

### Futbola, Mintxetan

Larunbata, 24
16:30 Haundi - Hernani (Pref.)
18:15 Elgoibar- Hernani **(Oho. jub.)**

### Eskubaloia, Kiroldegian

Larunbata, 24
15:45 IMH Elg. - Zarautz (Senior mut.)
**17:00** Pagoaga Elg. - Elorrio (Kad. nesk.)
18:30 Unceta Elg. - Elorrio **(Jub. nesk.)**

### Areto Futbola, Kiroldegian

Eskualdeko Txapelketa
Larunbata, 24
10:00 A mi me gusta el pipiripipi - Barrenkale
**10:45** Gaberdiko Pub - I nmobiliaria San Roke
**11:30** El Lute - Dinamo De Gaule
12:15 Parques y jardines - Kunta Kinte
Igandea, 25
10:15 The Rayers - Deportes Justo
11:00 Aizkorak Mendibil - Zordunak
11:45 Bar Tupi Azpi - Horacio F.C.
12:30 Patxi Taberna - La mosca gau

## Farmazia okindegia

| EGUNEZ | GAUEZ |
|---|---|
| 24 Etxeberria (Errosario kalean) | Etxeberria |
| 25 Etxeberria (Errosano kalean) | Etxeberria |
| 26 Escala | Escala |
| 27 Bidasolo | Bidasaio |
| 28 Etxeberria (Santa Ana kalean) Fernandez | Etxeberria Fernandez |
| 2 Yudego | Yudego |

FARMAZIAK

**ESCALA,** Rekalde, 1 Soraluze.
Tel 943 75 16 38

**FERNANDEZ,**
Herriko enparantza 4, Garagurza
Tel 943 75 61 42

**ZABALETA,** Kalebarren, 9 Soraluze.
Tel: 943 75 13 84

OKINDEGIA
25 igandea Eizagirre



*Zorionak Asier Basurtori, hilaren 25ean 4 urte beteko dituelako, Denon partez. Bereziki, amama Josefaren partez.



Zorionak **Eider Rodriguezi,** hilaren 24an 6 urle beteko dituelako. Gurasoen eta anaia lonen partez.



*Zorionak **Antxon,** gaur 3 urte bete dituzulako. Etxekoen eta bereziki, Aneren partez. Muxu bat eta ondo pasa.



• Zorionak Alazne, hilaren 25ean 13 urte beteko djtuzulako. Etxekoen partez.



• Zorionak Leire Arrillagari, atzo, hilaren 22an, 8 urte bete ziluelako. Fomiliaren eta bereziki, anaia Andoniren pa rtez.



• Zorionak Iker Barberori, bihar, hilak 24, 9 urte beleko dituelako. Familiaren partez ondo pasa eguna.



• Zorianak Ainhoari, hilaren 26on 3 urte beteko dituelako. Pasa ongi mari mendongi!



*Zorionak **Ane Uraini,** gaur 8 urte bete dituelako. Aitakoren eta amatxoren eta bereziki, Lararen partez.



• Zorionak Borjari, hilaren 22an 10 urte bete zituelake. Gurasoen, anaia Ignacioten eta lehengusu Mikelen partez.



♦ Zorionak **Mari Tere Gara** ori asteazkenean urteak beteko dituelako. Eb<ekuen partez muxu potalo morduct eta boi berezixa Ikerren partez. Ondo pasau eguna eta ahal bada urtia.



Zorionak bihurri, beste urte potolo bat Mea.

KAFETEGIA
943 74 42 65

Lor ezazu OPARthat "Ron Bacardi"ren eskutik

Mi Habana
Pizzak aste hukaeratan enkantrc!

Bibar, larunbata, MOZORRO LEHIAKETA egun guition zebar. Sari banaketa gaueko 1 ean izango da.

P. M1GEL 11111111ZUNO, B BENEA ("puinfin" tabernaren ondoato

# PROGRAMAZIOA

## O SAILA

aar, xakua,
*kaleareht ilatera totradale*
*probabeko atskera lianto dal*

**24** zapatua
**02:00etatikaurrera**

"DRAG QUEEN" gaua




**28** eguaztena
**21:30ean**

**DIAPOSITIBA EMIALDIA**
**Luis Kortabitarte**
*"Pakistan, Yosemite eta Bolivia;*
*elurra, haitza eta izotza"*

T TXE

Pedro Muguruza 8, behea Tel. 943 74 19 48

# agenca

2001 -11-23

## 23 BARIXAKUA

19:30 REKOLORE
KALE ANTZERKIA
Taidea: Hortzmuga

22:30 MUSIKA KONTZERTUA
Taldea: "Expresi6n Sonora"
Herriko Antzokian
Sarrera: 800 pta.

## 24 ZAPATUA

17:00 KARAOKEA ETA MOZORROEN DESFILEA
Plaza Handian
Antolatzailea: Atxutxiamaika

19:00 MAUXITXA TXARANGAREN KALEJIRA

22:011"LA FERRETERIA DEL SON" TALDEAREKIN DANTZALDIA
Plaza Handian

23:00 MAUXITXA TXARANGAREN KALEJIRA

24:00 MOZORRO LEHIAKETA
Plaza Handian
Antolatzailea: Gurutze Gorriko Gazteak

19:30-22:15 ZINEA
"Los angeles de Charlie"

## 25 DOMEKA

18:011 GELATXO ORKESTRAREKIN DANTZALDIA
Jubilatuen Etxean

19:30-22:15 ZINEA
"Los angeles de Charlie"

## 26 ASTELEHENA

22:15 ZINEA
"Los angeles de Charlie"

## 27 MARTITZENA

16:30 MOZORROEN ELKARTZEA
Plaza Handian

17:00 "KORRI, XALTO TA BRINKO" PAILAZOAK
"Herriko olinpiadetan" ikuskizuna
Plaza Handian teuria egingo balu, Kiroldegian)

18:00 SUZKO ZEZEN IKUSGARRIA
Plaza Handian

18:00 GELATXO ORKESTRAREN DANTZALDIA
Jubilatuen Etxean
Ondoren, mozorro lehiaketa

18:30 MAUXITXA TXARANGAREN KALEJIRA "AUSKALO" TALDEAK LAGUNDUTA

## 1 EGUENA

21:30 ZINE KLUBA
¯Bilfalo 66"

## 2 BARIXAKUA

22:15 ZINEA
"Los padres de ella"

ZINE kluba



### "Bilfalo 66"

Zuzendaria: Vincent Gallo.
Antzezleak: Vincent Gallo, Christine Ricci, Angelica Huston.
Billy Brown jaio zen herriaren izena da Btifalo. 1966 urtean jaio zen Billy, hain zuzen ere, Bufalo Bills errugbi taldeak partidu garrantzitsu bat jokatu zuen urte berean. Billyren amak ezin izan zuen partidua ikusi ospitalean baitzegoen. Une eta egun borrek bere bizitza markatuta lagako du. Bakardadea gai nagusitzat duen ezohizko komedia beltza da honako hau.

## AURKEZPENAK

Datorren ostegunean, martxoaren lean, 12. Korrikaren aurkezpena egingo da Kultur Etxean iluntzeko 20:00etan. "Mundu bat Euskarara Bildu" Iemapean datorkigu, martxoaren 29an hasi eta Euskal Herri osoa zeharkatu ondoren Baionan apirilaren 8an bukatuko den Korrika. AEK Euskaltegitik Korrika prestatzen lagundu nahi duten herritar guztiak gonbidatu nahi dituzte hilaren 1 ean egingo den aurkezpenera.

## OEIALDIAK

Udalak administrari, administrari laguntzaile zein menpeko lanpostuetan sor daitezkeen behin behineko beharrei erantzuteko lan poltsak osatu nahi ditu, eta horretarako deia luzatu nahi die interesatuei. Oinarriak, otsailaren 12an Gobernu Batzordeak onartutako baldintzak, hain zuzen ere, idazkaritzan daude. Eskariak aurkezteko epea martxoaren 5ean amaituko da, eta Udaletxeko Erregistro Orokorrera jo beharko da astean zehar goizeko 9:00etatik 14:00etara edo 16:00etatik 18:00etara eta lamnbatetan 9:00etatik 13:00etara.

## LASTERKETAK

Haizea Emakume TaIdetik adierazi digutenez, Lilathoiaren 12. edizioa martxoaren 4an, domekan, izango da Donostian. Parte hartu nahi duten emakume guztiek Pitxintxu dendan eman dezakete izena. Donostiako kaleetan zehar egiten den proba herrikoi honek 5 km. ditu eta lasterketa bukatzeko gehienezko denbora 45 minutukoa da.

## IKASTAROAK

Trikitixa ikastaroa

Arigera, helduen euskalduntze-alfabetatzea suspertzeko proiektuak, Trikitixa ikastaroa antolatu du. Martxoaren 6an hasiko da eta 10 saiotako iraupena izango du. Klaseak asteartero izango dira. Plazak mugatuak direnez, izena emateko azken eguna otsailaren 28a, asteazkena, izango da. Izena emateko tokiak, berriz, honakoak dira: Elgoibarko Izarra (943 74 16 26), Udal Euskaltegia (943 74 27 31) eta AEK euskaltegia (943 74 13 32).

Oinarrizko Buztin Ikastaroa

Lurki Elkarteak oinarrizko buztin ikastaroa antolatu du Udalaren laguntzaz. Martxoaren 5ean hasi eta apirilaren 6ra arte luzatuko da ikastaroa. Klaseak astelehenetik ostiralera 18:00etatik 21:O0etara bitartean izango dira. Informazio gehiago honako helbidean: Aita Agirre plaza, behea-ezk.

## KONTZERTUAK

"ExpresiOn Sonora" musika talde elgoibartarrak kontzertua eskainiko du gaur, hilak 23, gaueko 22:30ean Herriko Antzokian. 1969 urtean sortu zuten taldea Gabi Agirregomezkortak, Luis Arakistainek, Patxi Garciak eta Alfonso Guillok. 30 urte geroago, arrakasta handia lortu zuen taldearen musika berriz entzuteko aukera izango dugu. Gaurko kontzertuan Elgoibarko beste bi musikoren lankidetza izango dute, Endika Larrafiaga eta Jon Gurrutxaga arituko baitira "Expresi6n Sonora"-rekin batera.

## zine

KARTELDEGIA

"Los iingeles de Charlie"
Zapatua: 19:30-22: I 5
Domeka: 19:30-22:15
Astelehena: 22:15
"Blifalo 66"
Eguena: 21:30

**EIBAR, Unzaga**
"La leyenda de Bagger Vance"
Barixakua: 22:15
Zapatua: 17:00-19:30-22:15
Domeka: 17:00-19:30-22: 15
Astelehena: 19:30-22:15
Martitzena: *19:30-*22:15

EIBAR ialt
"El Protegido"
Barixakua: 19:30-22:15
Zapatutt: 17:00-19:30-22:15
Domeka: 17:00-19:30-22:15
Astelehena: 19:30-22:15
Martitzena: *19:30-'11:15

. i TR .vedad
"Al diablo eon el diablo"
Barixakua: 22:15
Zapatua: 17:00-19:30-22:30
Domeka: 17:00-19:30-22:15
Astelehena: *19:30-22:15
"Nacional 7"
otiena: 20:00

DEBA, Zubeltzu
tt a utoVI
Zapatua: 19:30-22:30
Domeka: 19:30-22:30
Astelehena:19:30-22:30
"Biehos"
Domeka: 16:30
*Ikuslearen eguna



## "Los angeles de Charlie"

Zuzendaria: McG.
Antzezleak: Cameron Diaz, Drew Barrymore, Lucy Liu.
Oraingoan Charliren aingeruei tokatu zaie telebistatik pantaila handira jauzia egitea. 70. hamarkadan Farra Fawcett, Kate Jackson eta Jaclyn Smith aktoreek egin zuten arrakastatsu telesail hau. Aingem berriak Cameron Diaz, Drew Barrimore eta Luey Liu dira. Inoiz aurpegirik ematen ez duen Charlie nagusiaren aginduak jarraituz, bahiturik dagoen informatikako jenio bat askatu beharko dute.

2001-11-23



Aste honetan argitaratu dugun erretratua 1925 ingurukoa da. Inauterietako argazkia da. Jende asko mozorrotzen omen zen garai hartan Elzoibarren. Antonia Gabilondok esan digunez, orain baino askoz ere gehiago. Dantza saioa ere egiten omen zuten Plazan. Hauek dira erretratuan agertzen direnak:

Ezkerretik eskumara: Demetrio Vallejo (t), Irene Etxaniz (t), Hipolito Gabilondo (t), Angel Gisasola (t), Patxiko Ayesta (t), Julio Etxaniz (+) eta Jose Iriondo "Sanson".

DEBA
aggep GARAIA
INMUEBLE AGENTZIA

ARRAINDEGIA
ALOKATZEN DA
SAN FRANTZISKO KALEAN
Guztiz instalatuta.

Errosario, 34-1 ezk • Tel. 943 744 283 • Faxa: 943 744 253

OIERKI IGOGAILUAK
Urrutira deitu gabe bertakook segituan konponduko dizugu igogailua
r; 943 82 01 09 t3" Faxa: 943 82 01 62
Indalezio Ojanguren 2, behea • 20600 E1BAR






# CAMBRIDGE

EXAMINATIONS, CERTIFICATES & DIPLOMAS

**ENGLISH AS A FOREIGN LANGUAGE**

**University of Cambridge**
**Local Examinations Syndicate**

**AZTERKETAK EIBARREN**

**MATRIKULAK: Martxoaren letik 15era.**

## AZTERKETAK ETA DATAK:

| | | |
|---|---|---|
| *Starters (azterketa osoa}* | *Larunbata Ekainak* | *2* |
| *Movers (azterketa osaa)* | *Larunbata Ekainak* | *2* |
| *Flyers (azterketa osoa)* | *Larunbata Ekainak* | *2* |
| *K.E.T. (Papers 1,2)* | *Larunbata Ekainak* | *9* |
| *K.E.T. (Papers 3)* | *Larunbata Ekainak* | *2* |
| *P.E.T. (Papers 1,2)* | *Larunbata Ekainak* | *9* |
| *P.E.T. (Papers 3)* | *Larunbata Ekainak* | *2* |
| *F.C.E. (Papers 1,2,3)* | *Larunbata Ekainak* | *16* |
| *F.C.E. (Papers 4,5)* | *Larunbata Ekainak* | *2* |
| *C.A.E. (Papers 1,2,3)* | *Asteazkena Ekainak* | *13* |
| *C.A.E. (Papers 4,5)* | *Larunbata Ekainak* | *2* |
| *C.P.E. (Papers 1,2,3)* | *Osteguna Ekainak* | *14* |
| *C.P.E. (Papers 4,5)* | *Larunbata Ekainak* | *2* |
| *B.E.C. I (azterketa asoa)* | *Asteazkena Ekainak* | *6* |
| *B.E.C. 2 (azterketa asoa)* | *Larunbata Ekainak* | *2* |
| *B.E.C. 3(azterketa osoa)* | *Asteartea Ekainak* | *5* |

CAMBRIDGE EXAMINATIONS CENTRE
EIBAR ES-438

## INFORMAZIO ETA MATRIKULAK:

| | | |
|---|---|---|
| ELGOIBAR: | Kensington School of English | 943 74 02 36 |
| | Key Academia de Inglēs | 943 74 30 44 |
| ARRASATE: | Parlance | 943 77 06 83 |
| BERGARA: | Espolon School of English | 943 76 03 53 |
| DURANGO: | Compubit English Institute | 94 620 20 20 |
| EIBAR: | Anglo-American | 943 20 64 57 |
| | Link Idiomas | 943 20 39 59 |
| | Ukitze | 943 70 25 59 |
| LEKEITIO: | Anglo American | 630 53 80 76 |
| ONDARROA: | Howdy Academy | 94 613 43 26 |
| OÑATE: | A & M School of English | 943 71 61 37 |

# hezi.tek

h e z i k e t a r a k o   t e k n o l o g i a

# INFORMATIKA IKASTAROAK

**Gure helburua kasu konkretu bakoitzean Hezkuntza soluzioak eskaintzea da.**

## 40 IKASTARO INTERAKTIBO BAINO GEHIAGO



- Ikasleak bere erritmora eta modu atseginean ikasten du, KOMENI ZAION ORDUAN.
- Adin guztietara egokitutako ikastaroak
- Ikastaro bereziak enpresentzako
- Taldeka eta irakaslearekin emandako ikastaroak:
  - Kontabilitate teorikoa
  - Oinarrizko informatika
  - Lan arriskuen prebentzioa
  - ...

**Galdetu!**





**Osagarri bezala material ugari erabil dezakezu eta hainbat bideo daude telebista ikusi ahal izateko**

**BULEGO NAGUSIA**
Tel./Faxa: 943 74 85 86
E-maila: hezitek@hezik.com

**ELGOIBAR 20870**
Ubitarte Plaza, 3 behea

**BERGARA 20570**
Telesforo Aranzadi, 3



***Eman izena tehenbailehen.***

Gainera, ordenadoreak **orduka** alokatzeko aukera duzu
Zure lanak egiteko edo interneten ibiltzeko.